

## 15668. PSIKOFAMAKOLOGIA

**Irakasleak:** *Larraitz Garmendia* (31 Taldea, euskaraz)  
*Amaia Arregi* (01 eta 02 Taldeak, gazteleraz)

**Kodea: 15668**  
**Hautazko irakasgaia**  
**Maila: zehaztugabea**  
**Bigarren lauhilekoa**  
**Kredituak Guztira: 6 Teorikoak: 4 Praktikoak: 2**

### HELBURU OROKORRAK

Ikasgai honen helburua, gaur egun ezagutzen diren psikofarmako garrantzitsuenen ezaguera orokorrek eskuratzea da, garuneko ekintza mekanismoak eta jokabidearekiko ondorioak aztertuz.

### GAITEGIA

#### 1. GAIA.- PSIKOFARMAKOLOGIARI SARRERA

Psikofarmakologiaren aurrekariak. Definizioa eta helburuak. Kontzeptu orokorrek. Farmako-jokabide erlazio bikoitzaren ezaugarriak.

#### 2. GAIA.- FARMAKODINAMIKA.

Sarrera: hartzailearen kontzeptua. Hartzaile motak. Hartzaileen erregulazioa. Modulazio alosterikoa. Farmako-hartzaile elkarrekintza: afinitatea, berezko aktibitatea, eraginkortasuna eta potentzia. Indize terapeutikoa. Farmako agonistak eta antagonistak. Elkarrekintza farmakodinamikoak: batuketa, potentziaketa eta antagonismoa. Psikofarmakoentzako ekintza-tokiak.

#### 3. GAIA.- FARMAKOZINETIKA

Farmakoen administrazioa: Bideak. Xurgapena. Banaketa. Farmakoen sarrera NSZ-ean; hematoentzefaliko langa. Ezabaketa: metabolismoa eta eskrezioa. Farmakoaren batez besteko bizitza. Farmakoaren metabolismoa aldatzen duten faktoreak. Elkarrekintza farmakozinetikoak.

#### 4. GAIA.- DOPAMINA, NORADRENALINA ETA SEROTONINA.

Sintesia, askaketa, kaptazioa eta metabolismoa. Hartzaile motak. NSZ-eko bide dopaminergiko, noradrenergiko eta serotonergikoak..

#### 5. GAIA.- ANTIPSIKOTIKOAK

Sarrera. Antipsikotiko motak: Klasikoak eta Atipikoak. Ekintza-mekanismoak. Efektu terapeutikoak eta sekundarioak. Farmako antipsikotiko berriak.

#### 6. GAIA.- ANTIDEPRESIBOAK ETA EUTIMIZATZAILEAK.

Sarrera. Antidepressibo motak: MAOI-ak, triziklikoak, ISRS-ak. Ekintza-mekanismoak. Efektu terapeutikoak eta sekundarioak. Antidepressibo berriak. Eutimizatzaileak: Litioa eta antikonbulstsiboak. Ekintza terapeutikoaren oinarriak.

## 7. GAIA.- GABA

GABA: Sintesia, askaketa, kaptazioa eta metabolismoa. Hartzailak. NSZ-eko neurona gabaergikoak. Neurona gabaergikoen farmakologia.

## 8. GAIA.- ANTSIOLITIKOAK

Sarrera: Benzodiazepinak: ekintza-mekanismoa eta profil farmakologikoa. Gaitasun adiktiboa. Antsiolitiko perfila duten beste farmakoak: serotoninergikoak eta noradrenergikoak.

## 9. GAIA.- ANSIETATEGATIKO NAHASTEEN TRATAMENDU FARMAKOLOGIKOA

Nahaste obsesibo-kompulsiboa, izu-nahastea, nahaste fobikoak eta trauma ondoko estresagatiko nahastea. Oinarri biologikoak eta tratamendu farmakologikoak.

## 10. GAIA.- AZETILKOLINA ETA AMINOAZIDO KITZIKATZAILEAK

Azetilkolina: Sintesia, askaketa eta metabolismoa. Hartzailak. NSZ-eko zentru eda bide kolinergikoak. Sinapsi kolinergikoen farmakologia.

Aminoazido kitzikatzaileak: Glutamato eta aspartatoaren ziklo metabolikoak. Hartzailak. Banaketa zerebrala.

## 11. GAIA.- INDARTZAILE KOGNITIBOAK.

Arreta-defizitagatiko nahasteak. Tratamendu farmakologikoak.

Alzheimer eritasuna. Alzheimer eritasunaren neuropatologia. Amiloide-jauziaren hipotesia. Hipotesi kolinergikoa. Hipotesi eszitotoxikoa. Tratamendu farmakologikoak.

## 12. GAIA.- NEURRIZ GAIN KONTSUMITZEN DIREN SUBSTANTZIAK

Menpekotasunen oinarriko kontzeptuak. Tolerantzia eta menpekotasuna. Tolerantzia motak: farmakodinamikoa, farmakozinetikoa eta jokabide-tolerantzia. Bide dopaminergiko mesolinbikoa eta errefortzaren psikofarmakologia. Anfetamina eta kokaina. Haluzinogenoak, diseinuko drogak eta feniziklidina. Marihuana. Nikotina. Opiazeoak. Alkohola.

## BIBLIOGRAFIA

---

**FLÓREZ, J.** Farmacología humana. Masson, 2002.

**GILBERT-RAHOLA, J.** Lo que siempre quiso saber de los psicofármacos y nunca se atrevió a preguntar. Aula Médica, 2000

**GÓMEZ-JARABO, G.** *Farmacología de la Conducta*. Síntesis, 1997

**PIES, R. W.** Manual de psicofarmacología básica. Masson, 2000.

**SALAZAR, M., PERALTA, C., PASTOR, J.** Tratado de psicofarmacología: bases y aplicación clínica. Panamericana, 2005.

**STAHL, S.** Psicofarmacología esencial: bases neurocientíficas y aplicaciones clínicas. Ariel, 2002.

**WIKINSKI, S y JUFE, G.** El tratamiento farmacológico en psiquiatría. Panamericana, 2005

## EBALUAKETA

---

Ebaluaketa irakasgaiaren edukien azterketa final baten bitartez egingo da, talde guztientzako bakarra. Azterketan, test moduko galderak eta praktiketako galderak egingo dira. Balorazioari dagokionez, eduki teorikoarena 8 puntu izango da eta eduki praktikoarena 2 puntu. Praktikak modu egokian burutzeak, lan eta txostenen bitartez, eduki praktikoaren azterketa egitea salbuetsiko du.